

Gonzalezekin ezezik PSOErekin ere negoziatu nahi du Duranek

Datorren astean biltzea proposatu die gobernuburuak UGT eta CCOOri

CiU koalizioa osatzen duten CDC eta UDC alderdiak bakoitza bere aldetik bildu zen atzo Bartzelonan Felipe Gonzalezek koalizioa osatzeko egindako proposamena aztertzeke. Goizean bildutako Uniok Gonzalezekin baino PSOErekin negoziatzea eskatu zuen eta ez dela koalizio gobernuaren oso aldekoa erakutsi zuen.

BARTZELONA-MADRIL

UDCren Gobernu Batzordearen bileraren ostean emandako prentsaurrekoan, Josep Antoni Duran Lleida demokristau katalanen buruak berretsi egin zuen bere alderdia gobernu osatzeko negoziazioetan parte hartzeko prest dagoela, baina Gonzalezekin soilik eztabaidatu beharrean, PSOEren ordezkariarekin negoziatu nahiago duela jakinarazi zuen. «Ez zaigu pertsonen iritzia axola, alderdien iritzia baizik» esan zuen Duranek, Gonzalezek eta PSOEk uste dutena desberdina izan litekeela komentatuz.

UDCko buruak ez zuen PSOE-CiU-EAJ koalizioa gobernu batzertu, baina horretarako «gero eta zailtasun gehiago» ikusten dituela adierazi zuen. Gonzalezekiko negoziazioa «programa oinarri moduan hartuta» egin behar dela esanda, Unioren ordezkariak ere bertan egon beharko lukeela ziurtatu zuen. Bilera aurretik eta ondoren, Duranek Xabier Arzalluz EAJko lehendakariarekin hitz egin zuen



Andaluzisten batasunik ez oraingoz

Alderdi Andaluzistako (PA) lehendakariatik dimititu egingo duela iragarri duen Alejandro Rojas Marcos Sevillako alkateak baztertu egin zuen atzo bere alderdia eta Pedro Pachecoren PAP alderdia batu daitezkeela. Bere dimisioaren berri emateko antolatutako prentsaurrekoan, Sevillan lortutako emaitza kaskarre (botoen % 3 besterik ez) leporatu zien errua eta bere gain hartu zuen erantzukizun osoa. Miguel Angel Arredonda PAko idazkari nagusia defenditu zuen eta gogor ekin zion Pacheco «probokatzailere» aurka, PAK baino boto gutxiago eskuratu dituela PAPEk gogoratuta. Bitartean, Sevillako PSOEri alkatetza uztea exigitu zion, botoen % 3rekin «ez duelako legitimitate moral edo politikorik».

eta bi alderdiek «agian proposamenari erantzun bera emango diogu» iragarri zuen. Oraingoz Arzalluz, Pujol eta beraren arteko elkarrizketarako datarik ez dagoela jakitera eman zuen. Gauean, CiU koalizioko alderdi nagusia den CDC bildu zen Bartzelonan.

Gonzalez eta euskal eta katalan nazionalisten negoziazio

hauek direla eta, Julio Anguitak damu zuen atzo gobernuburuak IUREn proposamenari muzin egin izana, «proposamen bikaina baitzen». Anguitaren arabera, Gonzalezek «politika kontserbadorea» egingo du ezkerrearen botoa eskatu arren. «Hori izarretan ere idatzita dago».

Bestalde, alderdi politikoekin gobernu osatzeko gehiengo

lortu ondoren, Felipe Gonzalez jarduneko lehendakaria Nicolas Redondo eta Antonio Gutierrez UGT eta CCOOko idazkari nagusiekin bilduko da datorren astean, atzo sindikatu bietako iturriek onartu zuten. Gutierrez eta Redondorekin kontaktuan jarri den Narcis Serra lehendakariordeak ez du bilera horretarako CEOE gonbidatu.

«Guztia muntaia da» dio Juan Guerrak bere bigarren epaiketan

SEVILLA

Bere kontrako akusazioak «muntaia hutsa» direla eta «dena argituko» dela esanez hasi zuen atzo Juan Guerrak bere aurkako bigarren epaiketa. Sevillako En-tzutegian ikusmin gutxi sortu duen Alfonso Guerraren anaia-aren aurkako bigarren auzi honen lehen egunean, akusatuek deklaratu gabe geratu ziren, defentsako abokatuek epaiketa bertan behera geratzea eskatu baitzuten.

Juan Guerraren aurkako bigarren epaiketa eragin duten gertakizunak 1988an jazo ziren Sevillako Alcalá de Guadaira herrian. Juan Guerrak eta bere bi bazkideek, Juan Jose Arenas eta Manuel Macias-ek, CIMPA en-

presaren bitartez Fridex industrialdean eta La Espadilla orube bana erosi zioten Ensidesa enpresa publikoari, nekazaritzarako lurraren prezioa ordainduta. Akusazioaren arabera, Juan Guerra eta bere bazkideek jakin bazekiten Alcalá de Guadaira Udalak lur horiek urbano izendatzeko asmoa zuela. Lurren izendapena aldatu zuten Manuel Hermosin alkate sozialista, Bernabe Sanchez Hirigintza zinegotzia, Ernesto Ollero udal arkitektoa eta Hirigintza batzordeko bi zinegotzi ere akusatuen aulkian eseri dira, Juan Guerrari orubeak saldu zizkioten Ensidesako bi bu-ruen —Fernando Castro eta Francisco Lorente— modura.

Fridex lurren izendapena al-



Orube batzuen erosketari irregularra leporatzen diote Juan Guerrari.

datzen saiatzeagatik —ez zen gauzatu— hamar akusatuei prebarikazioa eta gauzen benetako prezioa aldatzeko amarruak leporatzen zaie. Juan Guerrari, gainera, prebarikazioa bultzatzea

egotzi diote izendapena aldatzeko presioak egin zituelako. Delitu hauengatik, fiskalak hiru urteko kartzela zigorra eta 750.000 pezetako isuna eskatu du hamar akusatuentzat.

Aznar: «PPk ez dio Gobernuaren bizikletari makilarik jarriko»

MADRIL

PPk ez dio Felipe Gonzalezen gobernu berriari oposizio erradikalik egingo, atzo Jose Maria Aznar alderdi eskuindarreko presidentek ziurtatu zuenez. Aznarren hitzetan, «PPk ez du Gobernuaren bizikletaren gurpiletan makilarik jarriko, nahiz eta txirrindulariaz fio ez garen».

PPko Zuzendaritza Nazionalaren bileraren ostean emandako prentsaurrekoan Aznarrek bere alderdiaren gorakada azpimarratu zuen eta dei egin zien bere burukideei «muturreko erradikalismo» gabe eta ezertarako balio ez duen oihurik gabe» oposizioa egin dezaten. «Gobernurako balio duen alderdi baten heldutasuna erakutsi behar dugu oposizioan egiten dugun lanaren bitartez. Gure oposizioa zuhurra, serioa eta onerako izango da».

Legegintzaldia berri honetan Kongresuko zein Senatuko PPko talde parlamentarioetako elehunak oraingo moduan Rodrigo Rato (Kongresua) eta Alberto Ruiz Gallardon (Senatua) izango direla baieztatu ondoren, Gonzalez gobernu osatzeko egiten ari den negoziatioak aipatu zituen Aznarrek. Bere iritziz negoziatio horiek «gutxiengo zabalenera» dagozkio eta errespetua merezi dute, baina Erregeak ofizialki agindu aurretik gobernu osatzen hastea «bitxia» dela ziurtatu zuen.

Espainiaren egonkortasunean «gure 141 diputatuek talde txikikoek baino zeresan gehiago» dutela esan eta gero, Aznarrek PPren barnean «berriro berrikuntza» egingo dela iragarri zuen.



ALTZA
MONTAS
ORTZADAR
RIKARDO ARREGI

euskaltegiak

**Irakasle
ikastaroa**

uztailak 14 - 28
(praktikak barne)

OHARRA:
Beharrezkoa da EGA eta
diplomatura/lizenziatua izatea.

matrikula:

R. ARREGI: Sanchez Toca, 1

(943) 46 46 55